

noaua



**Irri abesbatza
bueltan da**

**‘Oltxiak’, igandean
haurrentzako zinea
Sutegin**



‘Aktibatzen’

**Jarduera fisikoa eta kirolaren
inguruko partehartze prozesua
aurkeztu du Udalak**

6. or.

KAFE GARAIA

Juanjo Allur:
“Beste merkataritza
eta beste kontsumo
eredu batzuk posible dira”

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

Matrikula epea

urtarrilaren 27tik otsailaren 4a arte
(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43- 943 36 66 08)

•HEZKUNTZA OROKORRA

(Oinarrizko kultur formakuntza: Euskara, Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, Idazketa.

Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazioatutako mugimendu artistikoak...)

- **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)
- **EUSKARA TAILERRA (MAILA 1 ETA 2)**
- **GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT**
- **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAR**



ARGIBIDEAK: 943 36 66 08

noa.ua



Askorako eman dute 25 urtek, 1996. urtean usurbildar askoren inplikazioari esker izugarriko bultzada izan zuen Noa.ua Kultur Elkartearen sorrerak.

Herria Herritik egiteko bultzada jaio zen usurbildarren bihotzetik eta eskuz esku mantendu da indar hau denbora guzti honetan zehar.

HARTUKO DUZU ERRONKA? EGIN BAZKIDE!

Zurekin batera beste 25 urte (gutxienez) Herria Herritik egiten jarraitzeko erronkan parte hartzea animatu nahi zaitugu.

**40€
URTEAN**

30 urte baino gutxiago dituzu?
Bazkide izatea erraztu nahi dizugu!

25 € / URTEAN*

* 30 urte betetzen automatikoki bazkidezia aruntza izatera pasako da.



ESKANEATU

ABANTAILAK

Abantaila nagusia herriarentzat izango da. Noa.ua Kultur Elkartea eragile garrantzitsua da herriko bizitza kulturala, aisialdiko, etabar bizirik mantentzeko. Baina zuk ere abantaila batzuk izango dituzu:

- Zozketak.
- Deskontuak kultur ekimenetako sarreretan.
- Datorren urteko errenta aitortenean hobaria jasoko duzu.
- Usurbildik kanpora bizi diren herritarrei, aldizkaria astero posta arruntez jaso aukera.



20 urte
sarean!



noa.ua

noa.ua.eus, usurbildarren zerbitzura



Albisteak iruditan

“Irriu abesbatza abian da berriro”

Urte berriarekin batera, Irriu abesbatzak bere ohiko jarduera berreskuratuko du. Idatzi baten bidez, entseguetara batzeko deialdia luzatu dute. 2024an 50. urtemuga ospatuko dute eta horra begira ere badaude.

Honela dio herritarrei luzatu dieten idatziak: “Irriu abesbatza berriro abian da bere ibilbidean. Urteroko egitasmoaz gain, badugu, aurrera begira, beste jomuga bat: Koruan, lehen aldiz, izen biltzea egin zeneko mende erdiaren ospakizuna. Hain zuzen, bi urte barru, 2024an burutuko dena.

Denbora honetan eta aurrerantzean abesbatza sendotzearen, gurekin kantuan parte har dezazun eskatzera gaitozkizu. Hau dena tradizio, musika zaletasuna eta garaikide izateko asmoa



Otsailaren 8tik aurrera, asteartetan bilduko dira 19:00tatik 20:00tara.

uztartzeko dituen abesbatzaren izenean.

Asteartetan bilduko gara 19:00tatik 20:00tara otsailaren 8tik aurrera. Asmo ho-

nekin bat egiten baduzu, zatoz gurekin!”. Harremanetan jarri nahi duenak, hemen txete du aukera: 650 02 87 58 (Arantzazu)”.

Laburrean

Neurri murriztaileak

Egunero neurri murriztaileak indarrean segituko dute otsailaren 13ra arte gutxienez. Bi aldatuta: Eskola Kiroleko lehiaketak jokoan dira berriz asteburuaz geroztik eta Covid pasaportearen erabilera luzatzearen aurka agertu da EAEko Auzitegi Nagusia.

Mozorroak prestatzen hasi

Aurten bai, Inauteri giroan murgiltzeko aukera izango da Usurbilen. Otsailaren 26a, larunbata. Gai zehatzik ez da aurten, norberak bere irudimenari eragin diezaiola beraz. Eta kalean erakutsi dezala otsaileko azken larunbatean.

Intzidentzia beherantz

Beherantz bidean jarraitzen du Covid-19aren intzidentziak Usurbilen; aste hasieran 4327,84an zen. Halere etenik gabekoak dira kasu berrien agerraldiak. 665 kasu zenbatu dira urtarrean udalerririk honetan, inoizko gehien.

noaua

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaua.eu /// www.noaua.eu
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorra:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eu

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eu



Euskal presoak
Euskal Herrira!



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ugaitz Agirre

Maite (bata bestearen parasito ginela konturatu eta gero, separatismoa bizitza ulertzeko korronte balekoa zitzaigun. Egindako bideak ematen duen perspektiba hori, nola esan?, argazkiak: oroitzen? Muxuak eta hozkadak. Laztanak eta harramazkak. Kilimak. Goizeko kafearen usaina eta ilunabarrereko likoreen itsaskortasuna. Baina batik bat, muxuak eta hozkadak, ufada garaikideek hozkada eta muxu bihurtu nahi dituztenak hurrenez hurren. Galdegin dezakegu, nola iritsi gara honaino?, erantzun bakar gisa efemeride zerrenda —kafe bat hartuko dugu lanera joan aurretik, bi kafesne, oso ondo geratzen zaizu ile-mozketa hori, ez nekien hain musikazalea zinenik, nik nahiago dut Rodriguezen azkena, zergatik hain azkar?, ardotan jarraituko dugu hizketan, gaztarekin konbinazio egokia, enpresaritzaren ikasi nuen, ea nola kudeatu emozioak erupzioa iristean?— hain absurdoa dirudi orain... Batzuetan logelara sartu eta arrotz sentitzea, bata bestearen gorputzak ezezagun. Besteetan, dena hain mekanikoa inertiaren paradigman jausita. Atzerrira eramango gaituzten trenetako komunetan negar egitea ulertu gabe malkoak zergatik diren. Zentzua emate aldera, musika jarri eta bizirauteko metro

Amodiozko kontakizuna – Ohe ertzean oleska



"Galdegin dezakegu, nola iritsi gara honaino?".

UGAITZ AGIRRE

"Zentzua emate aldera, musika jarri eta bizirauteko metro koadro minimoenean mantra gisa errepikatuko ditugu norberarenak izatea desio genituzkeen esaldi borobilak, "maitatzen ikasten dela borrokatzen", beti baitago zure minaz, penaz, mingotsaz hitz egokiagoak erabili eta erabiliko dituen bat"

koadro minimoenean mantra gisa errepikatuko ditugu norberarenak izatea desio genituzkeen esaldi borobilak, "maitatzen ikasten dela borrokatzen", beti baitago zure minaz, penaz, mingotsaz hitz egokiagoak erabili eta erabiliko dituen bat; eta halere, zure ahulezian, hutsean, gogo gabezian, borroka ipuin txar bateko pertsonaiek idazlearen frustrazio purrustari aurre

egitea da. Mundua irensteko eta irentsi orduko beste bati aurre egiteko adore perbertsoa hasiberrien inozentzian bakarrik aurki daitekeen epika da. Munduaren amaiera diruditen kostaldeetara erretiratuko gara, badakigu, nor bere bidetik, nor bere oinazearekin, zauri eta orbanekin. Badakigun bezala, izango dela egun bat elkar deituko garena, pozoirik gabe oroituko ditugunak argazki lausoetako muxuak eta hozkadak, laztanak eta harramazkak, kilimak, akaso malenkonioa goxo baten argitan ardo ona edanez edo dantzana.) zaitut.

Kanka kanka kanka Ohe ertzean kanka eseri naiz kanka Agata, zugandik kanka distantzia afektibo kanka minimoera. Zure kanka bizkar biluzia kanka besterik ikus kanka dezaket itzultzerakoan. kanka Oles egin kanka; zuretzat ez kanka diren hitzak kanka di-

relakoan, muzin kanka egin diozu kanka eskola uzteari. kanka Izara zuriaren kanka tolesturetan gordeta kanka dituzun istorioak, kanka jandantik legenda, kanka fikzioa eta kanka errealitatea non kanka bereizten diren kanka ezin jakinda. kanka Nirea ere kanka bat gehiago kanka izango da, kanka geruza berrien kanka pean, geroz kanka eta beherago, kanka geroz eta kanka hondorago, geroz kanka eta mitikoago.

kanka Berriak etorriko kanka dira oles kanka eta oles, kanka ohituraz, inertziaz, kanka behartuta ohe kanka ertz honetara kanka antzarak udaberrian kanka nola. Zer kanka egiten duten kanka oso ondo kanka ez dakitela kanka biluzaraziko zaituzte kanka eta bular kanka moztuak azpil kanka gainean erakustean kanka ihes egitearen kanka eta geratzearen kanka kulunkan, buelta kanka emango duzu kanka ez zaien kanka hain biolentoa kanka egin zurekin kanka intimatzea, zure kanka gorputz lotia kanka esnatzea. Ostean, kanka bizkarra erakusten kanka diezula ihes kanka egingo dute kanka mutu.

Datorren kanka bisita noiz kanka helduko, isilik, kanka martiri, mutilaturik kanka kanka kanka ieup!

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
PARRI
LATEXEA

· bazkariak EGUNERO
· afañak: OSTIRAL/LARUNBATA

☎ 943 362725
☎ 688 690 361

“San Tomas egunean Donostiara joan nintzen lagunekin eta ziur nago bertan harrapatu genuela”

Koronabirusaren azken olatu honek jo du bertan Usurbil. Azken bi hilabeteetako datuak ikusita, pandemiaren gainontzekoan izandako positiboen erdiak baino gehiago azken olatu honek dira. Gabonetan tokatu zitzaizen herritar askori etxean egon beharra, eta gabonetako ospakizun oro gelan sartuta egin behar izan zituzten. Horixe izan zen Uxue Orbegozen kasua ere. Horra NOAUA!ri kontatu dizkion gertaerak.

NOAUA! Noiz egon zinen konfinatuta eta zenbat denbora eman behar izan zenuen etxean?

Uxue Orbegozo: San Tomasak pasa ondoren konfinatu nintzen eta gabonak etxean pasa behar izan nituen, guztira 10 egun. Urte bukaera eta hasiera borobilak.

Nola jakin zenuen positibo zirela?

Nire ingurukoek positibo eman



“Garrantzisuena pila bat deskantsatzea eta ondo elikatzea izan zen”.

“Nik bakarrik eman nuen positibo etxean, eta lau gara: aita, ama, ahizpa eta laurok”

zuten eta nik ere sintomak nituen. Beraz, etxean antigeno froga egin nuen, baina bertan negatibo eman nuen. Oso gaizki sentitzen hasi nintzen handik gutxira eta Osakidetza

deitza erabaki nuen. Bertako antigeno proban eman nuen positibo, eta beraz, konfinatzea egokitu zitzaidan. Hala ere, ordurako, ziurtzat neukan positibo nintzela.

Sintomak izan dituzu. Zer egin duzu mina arintzeko?

Bai, sintomak izan ditut. Mina arintzeko paracetamol eta ibuprofeno hartzen aritu nintzen. Horrez gain, garrantzitsuena pila bat deskantsatzea eta ondo elikatzea izan zen.

Etxean eman duzun denboran zer egin duzu ez horrenbeste aspertzeko?

Berrogeialdia egiten ari ziren beste lagunekin hitz egin, partixean jolastu, lanak egin, irakurri eta gehien bat film eta telesailak ikusi nituen.

Zure etxeok ere positibo eman zuten?

Ez, nik bakarrik eman nuen positibo etxean, eta lau gara: aita, ama, ahizpa eta laurok.

“Ia hilabete pasata, sintomek hobera egin dute”

NOAUA! Birusa non hartu zenuela uste duzu?

Uxue Orbegozo: San Tomas egunean Donostiara joan nintzen lagunekin eta ziur nago bertan harrapatu genuela lagunek. Lehen aldia nuen koronabirusa hartzen.

Nabari duzu zerbait behin gaixotasuna pasata? Kirola egitean arnasketa arazoak, usaimenik ez edo antzekorik?

Bai, indargabetuta sentitzen nintzen, inoiz baino gehiago kostatzen zitzaidan kirola egitea. Segituan nekatzen nin-

tzen eta arnasa hartzeko zailtasunak izan nituen. Orain, ia hilabete pasata sintoma horiek ere hobera egin dute.

Zein gomendio emango zenieke ingurukoek kalean beren burua zaintzeko eta positibo

emanez gero, etxean aspertu beharrean denbora aprobe-txatzeko?

Ahal den moduan gustuko dituzten ekintzak burutzea, telesail eta film asko ikustea, irakurtzea eta beraien ingurukoekin hitz egitea.

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045

GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERJIA BERRITAGARRIAK
info@inakiturgintza.com • www.inakiturgintza.com
600 024 825

Juanjo Allur: “Siadecok garaian garaiko beharrei erantzuteko ahalegina egin du”

Siadeco Ikerketa Elkar-teak 50 urte bete zituen 2017an. Sortzaileen asmoari eutsiz, alor desberdinetan jarduten du lanean; ikerketa aplikatuan oinarritutako proiektuak burutuz soziologian, sozioekonomian nahiz maila soziolinguistikoan. Juanjo Allurrek gidatzen du Siadeco kooperatiba eta iraganeko nahiz gaur gaurko gako ugari eskaini dizkigu.

NOAUAren 25. urteurrenaren aitzakian, ‘Kafe garaia’ izeneko atal hau abiarazi genuen duela hilabete batzuk. Hauze izango da sail honetako azken elkarrizketa. Ezer baino lehen: zu non zeunden duela 25 urte?

Juanjo Allur: Aldaketen garaian nengoen duela 25 urte. Bai maila pertsonalean, baita maila profesionalean ere. Pertsonalean, Legorretakoa izanik eta baserri etxekoa izanik, Usurbilera eta kale etxera etorri nintzen. Maila profesionalean berriz, Siadecoren hasi berria orduantxe. 25 urte bete ditut aurten Siadecoren. Hasi, Orioko Arrantzaleen Kofradiak Siadecori egindako enkargu batekin hasi nintzen. Orion arrantza portu bat eraikitzea ekonomikoki bideragarria izango zen ala ez, azterketa hori egiten hasi nintzen eta horrelaxe daramatzat 25 urte. Orduz geroztik beste ikerketa askotan ere hartu dut parte.

Oker ez bagaude, Siadeco ikerketa elkarteko arduradun nagusia zara gaur egun.

Siadeco kooperatiba bat da eta kooperatibako kide naiz. Zuzendaritza talde bat dago, bertako partaidea naiz, eta administratzaile bakarraren figura, papera eta funtzioa betetzea momentu honetan niri egokitzten zait. Baina kooperatiba bat da eta talde bat gara.



NOAUA! sortu zen urtean etorri zen Legorretatik hona bizitzera. Orduantxe hasi zen Siadecoren lanean.

JUANJO ALLUR

“Gaur egun ikerketa soziologikoak, sozioekonomikoak eta soziolinguistikoak egiten ditugu. Siadecoren metodoan gara adituak, bai diagnostikoak egiten eta baita planak egiten ere. Metodologia hori eremu ezberdinetan aplikatzen dugu”

Siadecok 50 urte bete zituen 2017an eta, besteak beste, euskararen kaleko erabilera neurteko metodologia sortu zuen eta lehen ikerketa soziolinguistikoak egin zituen. Bestelako esparruetan ere aritzen zarete. Gaur egun, zeintzuk dira lan ildo nagusiak?

Esango nuke Siadecok garaian garaiko beharrei erantzuteko ahalegina egin duela. Duela 55 urte Siadeco sortu zutenek ikusi zuten ze arazoak zeuden une hartan. 60ko hamarkada zen; *desarrollismoaren* garaia. Estatuko inmigrazioaren mugimendu handia zegoen orduantxe.

Euskal Herriko herri askotan etxeak egin eta egin, herriak hazi eta hazi, lantegiak egin eta egin... Inolako antolaketarik gabe. Egoera horri aurre egiteko diziplina anitzeko talde bat eratu zen: arkitektuak, gizarte langileak, soziologoak, ingeniaria industrialak... Talde horrek sortu zuen Siadeco, eta balio eta printzipio batzuekin eratu zuten. Hasiera hasieratik da Siadeco kooperatiba eta gizarte garapenerako elkarte bat izateko bokazioa du. Sortu zenean, artean Franco bizirik zen. Izena euskaraz ezin jarri eta Siadeco izena ipini zioten kooperatibari: “Sociedad de investigación aplicada al desarrollo comunitario”.

Ikerketa soziourbanistikoak egiten hasi ziren, gero sozioekonomikoak, gero soziolinguistikoak... Sozio asko dago hor. 70eko hamarkadan adibidez, Siadecok ikerketa bat egin zuen Usurbilerako. Etxe mordo bat egiteko proiektu bat zegoen eta Siadecok egindako ikerketa horretan oinarrituta Usurbilgo Udalak erabaki zuen proiektu hori aurrera ez eramatea. Beste herri batean bilakatuko

zelako eta herria ez zegoelako prestatuta zerbitzu publikoan aldetik.

Hortik aurrera, drogomenpekotasun alorreko ikerketak ere egin ditugu. Ikusten duzun moduan, hamarkada bakoitzean, garaian garaiko beharrei erantzun die Siadecok.

Gaur egun ikerketa soziologikoak, sozioekonomikoak eta soziolinguistikoak egiten ditugu. Gu metodoan gara adituak, bai diagnostikoak egiten eta baita planak egiten ere. Eta metodologia hori eremu ezberdinetan aplikatzen dugu.

Udalen segregazioan ere aritu gara lanean. Aurreko astean Galdakaoko Udalak Usansoloren segregazioa onartu zuen eta memoria Siadecok egin da.

Akaso Aginagakoak etorriko zaizkizue orain.

Ea, ea. Momentu honetan Igeldorekin ari gara. Udalerri izateko ez, Donostiako Udalak ez zuelako nahi izan, baina une honetan auzo udala izateko edo tokiko entitate izateko ahaleginean ari dira. Ikusten duzun moduan, saltsa ezberdinetan gabiltza.

“Herri kontzientzia bat sortu behar da, beste merkataritza eredu bat posible dela sinistarazteko”

NOAUA! Sozioekonomiaz eta tokiko garapenez ere arduratzen da Siadeco. Zuk zeuk Hurbilagoren kanpaina asko bideratu dituzu. Zuen arteko lankidetzaz noiz hasi zen?

Juanjo Allur: Ni Hurbilagorekin hasi aurretik Hurbilago sortua zegoen. 2010ean edo 2011n, Usurbilgo Udalak lehiaketara atera zuen Usurbilgo tokiko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko plan bat egiteko proiektua. Siadeco aurkeztu zen lehiaketa horretara, irabazi egin genuen eta lehendabiziko diagnostikoa eta plangintza egin genuen. Udalak apustu fuertea egin zuen eta plana bere egin eta martxan jartzeko borondatea agertu zuen. Plan hori aurrera eramateko zerbitzua eskatu zion Udalak Siadecori. Orduan ezagutu nuen garai hartan Hurbilagon zegoen merkataritza taldea. 2011n hasi ginen elkarrekin lanean eta gaur arte.

Urbilen irekierak eragin zuzena izan zuen Usurbilgo merkataritzaren eguneroko martxan. Beste lehiakide gogor bat ere agertu da azken urteotan, salerosketa elektronikoa. Fenomeno honi



“Usurbildarrok urtean egiten dugun merkataritza gastua 25 milioi euro ingurukoa da. 25 milioi horietatik 11 milioi pasatxo geratzen dira herrian. Horrek esan nahi du erdia baino gehiago kanpora doala”.

JUANJO ALLUR

“Beste merkataritza eta beste kontsumo eredu batzuk posible dira”

nola aurre egin? Pentsatzen dut instituzio publiko zein merkataritza elkarte guztien kezka horixe bera izango dela.

Beste merkataritza eredu batzuk eta beste kontsumo eredu batzuk egon daitezkeela sinistuz, eta horren alde zerbait eginez. Beste merkataritza eta kontsumo eredu batzuk posible direla, jasangarriagoak eta batez ere herritarren bizitza-kalitatea hobetzen lagundu dezaketenak.

Kontsumismoaren zurrumbilo batean sartuta gaude: zenbat eta gehiago erosi, zenbat eta gehiago kontsumitu, hobe. Eta zurrumbilo horretan gure etorkizunaren eta gure bizitza-kalitatearen kontra goaz.

Azalera handiak eta merkataritza elektronikoa aipatu dituzu. Usurbildarrok urtean egiten dugun merkataritza gastua 25 milioi euro ingurukoa da. Elikadura, arropa, bestelako jeneroa... 25 milioi horietatik 11 milioi pasatxo geratzen dira herrian, herriko komertzioetan. Eta horietatik 6 milioi t’erdi Urbilek eramaten ditu.

Horrek esan nahi du erdia baino gehiago kanpora doala.

Urbilen moduko azalera handietara, komertzio elektronikora baina baita beste herrietara ere. Usurbildik jende asko joaten da Donostiara, Lasartera... Horrek zer pentsatua eman behar digu. Horren guztiaren aurrean zer? Lortu behar dugu eskaintza komertziala osatuagoa eta hobea egitea herritarrei. Hori hasteko. Eta gero, batez ere, herri kontzientzia bat sortzea, sektoretik bertatik hasita. Zerbitzu onak, jenero ona... Beti inportanteak izan diren kontuak dira horiek, baina dendari eta herritar/bezeroen arteko komunikazioan eta konfiantzan enpatia bat lortu behar da. Hori inportantea da. Bezeroarekin salerosketa harreman batetik haratago doan harreman sendoago bat bilatu behar da.

Zerbitzu ona bermatzeaz gain, herri kontzientzia bat sortu behar da, beste merkataritza eredu bat, jasangarriagoa eta hobeto bizitzeko aukera emango duena posible dela eta egingarria dela sinistaraziz. Bai sektorearen aldetik, bai herritarren aldetik eta orain arte bezala, Usurbilgo Udalak egin duen apustuarekin jarraituz.

“NOAUA!k hurrengo belaunaldiari begira jarri behar du”

NOAUA! Euskararen normalizazioan eragiteko sortu zen NOAUA! Kultur Elkartea. Hedabide gisa, paperean eta sarean ari gara. Elkarte bezala, kultura arloan eta aisialdian. Bistan da lan asko dagoela egiteko oraindik. 25 urteko ikuspegia duzun aldetik, NOAUA!k zer du faltan eta zer du soberan?

Juanjo Allur: Soberan ez du ezer izango, ezta? Hedabide bezala egiten duzuen lanaz aparte, euskal kulturaren ikusgarritasunean egiten duzun

lana oso oso inportantea da. (...) Euskaraz eta euskaratik sortzen duen belaunaldi oso interesante bat dago une honetan eta uste dut falta zaigula belaunaldi berriak horretara katigatzea.

Gure belaunaldia oso epela izaten ari dela iruditzen zait. Oso epela. Gure aurrekoek frankismoa bizi izan zuten, ikastolak sortu zituzten... Guri dena eginga etorri zaigu eta oso epela izaten ari da gure belaunaldia. NOAUA!k hurrengo belaunaldiari begira jarri behar du. Euskal kultu-

ra interesgarriago eta ikusgarriago egiteko zer egin dezake NOAUA!k? Ari zarete eta jarraitu horretan.

Hedabide gisa, formatuak aipatu dituzu eta horien inguruko gogoeta bat egingo nuke. Batzuetan ez dakit digitalekoak ez ote dion paperrari itzala egiten. Formatuen inguruan hausnarketa bat egitea interesgarria izan daitekeela iruditzen zait, gero berdin jarraitzeko edo ez.

Paperean argitaratzen jarraitzea uste dut inportantea

dela, etxe guztietara iristen delako. Baina maiztasunaren aldetik edota edukien aldetik agian buelta bat emango nioke aldizkariari. Digitalekoa hainbeste errepikatu gabe beste gai batzuk landu daitezke, sakontasun maila aztertuko nuke... Usurbilen bertan kokatuak ez dauden gaiak ere Usurbilera ekarri daitezke... Eta noski, belaunaldi gazteak erakarri behar dira, izan irakurle bezala, izan proiektuko kide bezala.

Galbidean den angula hizpide

Angula garaia izan ohi da hauxe eta Aginagako altxor hori izan zuten hizpide nagusi duela 25 urteko NOAUA!n.

Inauterietako gaia, zirkua

Inauteriak ere gainean zirela eta, mozorrotzeko ideiak eman zituen **Atxegaldeko** emakume mozorrotu talde batek. **Zirkua** izan zen urte hartako gaia, eta NOAUA!k ideiak eman zituen mozorroa prestatzeko.

HBko Mahai Nazionalaren atxiloketa

Politika kontuetan, HBko Mahai Nazionalako kideak gartzelara bidali zituzten.

Frontoiko obrek ere aurrera jarraitu zuten, eta lehen zuloak egiten hasita, ezker pareta ubide baten gainean egin zutela konturatu ziren.

Angulei buruzko erreportaje sakona ere eskaini zuten ale hartan. Angulak nondik datozen, zergatik diren horren

preziatuak eta nola esportatzen dituzten azaldu zuten orduko aldizkariko lagunek.

Aurrekontuak ere hizpide izan zituzten udaletxean, bai eta kirol arloan ere. **Usurbilgo kirol taldeen** arteko diru banaketari buruz aritu ziren kirol tartean. Amaitzeko, beti bezala, lehiaketa. Inauterietako argazki zahar bat jarri zuten, eta bertan agertzen ziren lau pertsonaren izen-abizenak asmatu behar ziren.



1997ko otsailaren 7ko portada.

Duela 25 urte

NOAUA! 13. zenbakia 1997ko otsailaren 7an

“Orain angula gutxi dago eta muturjotze asko”

Patxi Illarramendi Txokoaldeko Simonenea baserrian jaio zen 1912an. Aitak eta amak erakutsita, 8 urterekin hasi zen angulak harrapatzen. Orduz gero, angula ugari harrapatu izan du Oria ibaian. Orain, beraiek garai hartan anguletarako erabiltzen zuten alen miniaturak egiten pasatzen du eguna.

NOAUA! Txokoaldekoa izanik, arraun kontuan Orioren aldekoa?

Patxi Illarramendi: Bai, noski. Txokoalde eta Aginaga aldean Orioren aldekoak ginen gehienak. Nik probak egin nituen 20-21 urterekin, baina ez nuen balio. Garai hartan, arrauna estimatua zen.

Aginagak ere irabazi zuen Kontxako bandera. Ospatu al zenuten hura?

Ni ez nintzen joan ere egin. San Estebango bailara eta Aginagaren artean, beti egon dira ezberdintasunak, gorrotorik ez, baina...

Eta angulak harrapatze-rakoan, izaten al zen ika-mikarrik?

Garai hartan, 50-60 ala ibil-

tzen ginen Oria erriean, eta gauean ez zen ika-mikarrik izaten. Orain, muturjoka ibiltzen direla entzun izan dut, baina orduan ez zen horrelakorik izaten. Batzuek angula gehiago ateratzen zuten, besteek gutxiago; batzuek onak, besteek okerragoak...

Etxean zenbat ibiltzen zineten angulatan?

Guk hiru ala genituen. Gure familian guztiok egiten genuen angulatan. Arrebek igeri bazekiten, eta haiek ere askotan joaten ziren angulatara. Ni osabarekin joaten nintzen, eta 10-12 kilo ekartzean, aitak eta anaiak burla egiten ziguten: “Hori besterik ez al duzue ekarri”, esaten ziguten.

Zuek haztegiak zenituzten, ezta?

Bai guk eta baita beste arrantzale askok ere. Bakoitzak bere haztegia izaten zuen. Guk Frantziatik ekartzen genituen angulak. 1000 kilo ekartzean erdiak bakarrik iristen ziren bizirik, azpian zeudenak hil egiten ziren. Hauek berehala jan edo plazako oilaskoei ematen genien jateko. Orduan ez zegoen hozkailurik.

Oraingo txalupa modernoak izanez gero, zenbat angula harrapatuko zenuten?

Eramandako ala leporaino bete. Oraingo motorrekin ezin jakin zenbat kilo harrapatuko genituzkeen. Orain, berriz, angula gutxi eta muturjotze asko. Gu isil-isilik ibiltzen ginen. Angula ez baldin bazen elkarrizketa, bai, baina bestela kinkarik ere ez, entzule bat edo beste...

Angula harrapatzeko garairik onena?

Ilargi berria, gau iluna izaten baita. Gero, ilargi betean, urak zikintzen zirenean ere oso ona izaten zen, angulak ez baitu ikusten. Angula txikia da, eta bere defentsa iluntasuna izaten da. Egunez ez da ikusten, gero, gauean ahal badu bazterretik joaten da.

Hotz handia bada, ur azpi-azpitik, eta epela bada, gainetik.

Zer dela eta dago orain gutxiago?

Bistakoa da. Aita eta amak itsasoan harrapatzen dituzte, eta hauek gabe, umerik ez egon. Urtez urte gero eta angula gutxiago dago.



Patxi Illarramendi, Txokoaldeko Simonenea baserrikoa.

Angulak harrapatzeaz gain, beste lanbiderik izan al duzu?

Michelinen egiten nuen lan. Angulatan gaztetan egiten nuen gehien. Soldaduskatik etortzean erruberak egiten hasi nintzen. Lasarteko lan-tegian egindako lehen kubiarta nire eskuetatik pasa zen 1934an. Hegazkinen gurrupilak egiten nituen. Hala ere, gauean angulatan egin, arropak aldatu eta zuzenean lanera makina bat bider joana naiz.

Oria ibaia zikina dago.

Orain ezin da bertan igeri egin. Gu umeak ginenean edateko modukoa egoten zen, lau metroko sakoneran hondoa garbi-garbi ikusiz.

Jarduera fisikoa eta kirolaren inguruko partehartze prozesua aurkeztu dute

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren plan estrategikoa garatzen hastera doa Usurbilgo Udala, herritarrekin eta eragileekin batera bideratu nahi duen parte hartze prozesuarekin, “Aktibatzen. Jarduera fisikoa eta kirola, denon eskura” aldarripean.

“Herritar guztiak gonbidatu nahi genituzke modu batean edo bestean prozesuan parte hartzera”, adierazi zuen Beñat Larrañaga zinegotziak aste hasieran Potxoenean egin zuten aurkezpenean, “denon laguntzarekin jarduera fisikoa eta kirolaren alorrean Usurbilen hartu nahi den norabidea finkatu nahi dugulako”. Eta “kirola eta jarduera fisikoa onurak ukaezinak” izanik, “aktiboak diren herritarrek horretan jarrai dezaten eta inaktiboak direnak aktibatzen hasi nahi dugu”. Hortik, egitasmoaren leloa; “aktibatzen”.

Parte hartzeko hainbat bide zabalduko ditu Udalak. Prozesua kirol alorreko aholkulari Juanma Muruak dinamizatu du. “Eskarmentu handia du gisa honetako lanketetan. Bereziki jarduera fisikoa eta



“Herritar guztiak parte hartzera animatzen ditugu”.

GALDETEGIA

Prozesuaren baitan, galdetegi bat betetzeko aukera egongo da otsailaren 7tik 18ra

kirola ulertzeko duen ikuspegi integrala izan zen berarekin elkarlanean hasteko arrazoi nagusia. Guretzako plazerra da berarekin ibilbide hau jorratzea eta herriak dituen beharrik identifikatzen lagunduko digula espero dugu”, udal gobernu taldeko kidearen esanetan.

Talde eragilea

Egunotan zabalduko den prozesuaren baitan, galdetegi

bat betetzeko aukera egongo da otsailaren 7tik 18ra. Hainbat saio egingo dituzte Usurbilgo Udaleko sail ezberdinekin edota kirol elkarteekin. Lau saio egitekoak dira hurrengo hilabeteotan; bi herritarrekin, beste bi talde eragilearekin. Hausnartu nahiz proposatzeko aukera izango da, “herritar guztiak parte hartzera animatzen ditugu. Guztion iritzia interesatzen zaigu, bai pertsona aktiboena kirolarekiko duten ikuspegia jasotzeko zein inaktiboaren iritzia ere; zergatik ez diren hain aktiboak, ze oztopo aurkitzen dituzten...”, Muruak argitu duenez.

Plan honen ildo estrategikoak definitzen lagunduko

duen hausnarketarako talde eragilea osatu dute. “Kirolean erreferenteak diren pertsonak identifikatu ditugu Usurbilen”, Muruak azaldu digunez. Sei herritar aditu eta arituok osatuko dute bilgunea; Josune Iparragirrek, Iban Maritxalarek, Ana Errastik, Jon Mikel Azpiatzuk, Oidui Usabiagak eta Uxue Fernandez Lasak. Udaletik gonbita jasotakoan, Fernandezek hitzetan, “asko pentsatu gabe eman genion baiezkua ilusioz eta arduraz”. Aritu ikuspegia bai, baina “herritar aritu izan gaitezkeela azpimarratu nahi nuke”, zioen Fernandezek, “aritu esperientzia oso desberdinak bizi izan ditugulako jarduera fisikoa eta kirolaren esparruan”. Talde eragileko kide batzuk hezkuntza munduan, beste batzuk federazio edota klubetan kudeatzaile gisa dabilta. Talde anitza. “Badira auzoetako testuingurua oso ondo ezagutzen dutenak, Usurbilgo bertakoa ere bai”, edota kanpotik “bestelako eredu batzuk ekar ditzakegu” baita. Abiapuntu eta kanpo begirada horretan oinarrituta, “eta hortik egiten saiatu nahi genuke”.

Herritar guztiak asebeteko dituen eskaintzaren bila

Jarduera fisikoa eta kirola modu “zabal eta inklusibo batean garatu ahal izateko” eta erronka berriei heltzeko bideratu nahi dute hausnarketan. “Kolektibo ezberdinen beharrik entzun eta ahal ditugun herritar guztiak asebeteko dituen estrategiak diseinatu behar ditugu. Gure erronka ikuspegi zabal eta inklusibo bat garatuko duen kirol politika bat diseinatzea izango da, izan jaioberri edo adinekoentzako, edozein dela ere norberaren gene-

roa edo sexu orientazioa, non arrakala sozioekonomikoa ez den oztopo izango eta euskarazko eskaintza anitza izango dituen ardatz”.

Elkarlanaren bidetik

2020ko otsailean lehen urratsak ematen hasi ostean, bizi dugun osasun krisialdiak atzerarazi duen beste egitasmo bat da honakoa. Ordutik honako bidea “ez da erraza izan”, Larrañagak oroitarazi duenez. Murrizketa eta debeku anitzei aurre egin beharrean aurki-

tu direla gogorarazi du eta ez direla garai bateko jarduerara itzuli. “Gaur egun oraindik ere Kiroldegiko funtzionamendua baldintzatua dugu eta araudi aldaketak etengabekoak dira”. Baita kirol taldeen dinamiketan ere; gogora ekarri du, hilabete honetan zehar debekatuak egon direla Eskola Kiroleko lehiaketak, “neurri zentzuga-bea” udal gobernu taldeko kidearen esanetan.

Bi urteotako bidearen beste alderdia ere gogora ekarri nahi izan zuen Larrañagak. “Uda-

lean lanean jarraitu dugu; hala nola herriko kirol elkarteekin elkarlanean, kirol instalazioetan hainbat inbertsio eta hobekuntza eginez eta jarduera fisikoa modu zabal batean ulertu eta lantzeko urratsak eman ditugu”. Eta orain, sektore honetako plana garatzeko hausnarketarako tartea hartzera doa.

Web orrialdea

Informazio gehiagorako eta ekarpenak online egiteko: usurbil.eus/aktibatzen

Gogotsu hartu zuten 'Hotzak Akabatzen' probaren itzulera

Bi urteren ostean sasoi-ko itzuli zen Irisasi BTT "Hotzak Akabatzen" proba urtarrilaren 30ean.

Dortsalak agortuta, 10. edizio borobilarekin. Behe-laino artean zen Andatzari itzulia emanaz gozatu ederra hartu zuten Usurbildik nahiz beste hainbat txokoetatik etorritako partaideek.



Behe-laino artean ibili ziren Andatza inguruan.



Usurbildik nahiz beste hainbat txokoetatik etorritako partaideak elkartu ziren igande goizeko proban.

Udarregi Ikastolako enrrifa zozketa

DBH4. mailakoek ikasbidaia-rako laguntza biltzeko bi ekimen jarri dituzte martxan. Ondoko argazkiko poltsa berrierabilgarrien salmenta batek 7 eurotan. Bi eredu dituzue aukeran; kolore txurian edo beltzean. Eskariak email bidez bideratu daitezke jtxueka@udarregi.eus helbidean.

Errifa zozketa ere egin dute. Lau zenbaki saritu dituzte, baina saritu bakarra agertu da; Amagoia Mitxelena. BM-ko saski bat irabazi du 4111 zenbakidun errifaren jabeak. Errifa zozketako beste hiru zenbaki sarituak honako hauek direla berri eman digute Udarregik. "Zure errifa saritua izan bada, jarri harremanetan" aanorga@udarregi.eus helbidera idatzita:

- 2656: Opil-Goxon 50 euroko bonoa.
- 1443: Marije arropa denda 50 euroko bonoa.
- 4148: Otar-Goxoko otarra.



Amagoia Mitxelenak BM-ko saski bat irabazi du.

Miriam Arrillaga, Binakako Master Laboral Kutxa lehiaketan

Binakako Master Laboral Kutxa joan zen asteburuan hasi zen. 84 pilotarik eman dute izena aurten, tartean Miriam Arrillagak. Asteburu honetan, Larrabetzun hasi dira kanporaketak. Irungo pilotalekuan, martxoaren 27an jokatu dira final handiak.

VI. edizio honetan ere, pilota goxoa eta pilota mistoko

txapelketak izango dira, beste bi azpaldetan banatuta, elite maila eta promozio maila. Miriam Arrillagak ez du lan erraza izango ohiko aurkari nagusiak aurrean izango baititu: Amaia Aldai lau eta erdiko txapelduna, Olatz Arrizabalaga San Mateotako txapelduna zein Leire Garai azpitxapelduna.



Martxoaren 27an jokatu dira final handiak, Irungo pilotalekuan.

'Apaiz kartzela' ikusgai Sutegin

1968-1976 aldian Zamorako apaizen kartzelan preso egon ziren apaiz batzuen istorioa kontatzen duen dokumentalak dozenaka usurbildar hurbilarazi zituen Sutegira igande arratsean. Amaieran, Ritxi Lizartza zuzendarietako batekin eta protagonistetako batekin, Xabier Amurizarekin, solasaldi bat egiteko aukera izan zuten herritarrek.

1968an bost apaiz terrorismoa egotzita epaituak izan ziren 10 eta 12 urteko kartzela zigorrerara kondenatuta. Frankismo garai betean, herri eragileei elizaren eraikinak uzteagatik, grebetan parte hartzeagatik eta garaiko erregimenari bizkarra emateagatik Zamorako apaiz kartzela berezian sartu zituzten. Gehiago ere etorri ziren gero, baita apaiz katalan, galiziar zein espainiarrak ere.

"Askok ofizioa utzi zuten"

Euskaldunak izan ziren gehienak eta torturak salatu zituzten. Burgoseko prozesuan zigorrak gehitu zitzaizkien,



Film amaieran, Ritxi Lizartza zuzendariarekin eta protagonistetako batekin, Xabier Amurizarekin, solasaldi bat egiteko aukera izan zuten.

'APAIZ KARTZELA'

"1968an bost apaiz epaitu zituzten, 10 eta 12 urteko kartzela zigorrera kondenatuz"

batzuei 50 urterainoko kondenak jartzeraino. Ihes saiakera eta euren egoeraren berri emateaz arduratu ziren urte batzuetan, eta saiakera haien ostetik, zigorrak eta inkomunikazioa jasan behar izan zituzten. Frankismoaren amaierarekin

batera, pixkanaka atera egin ziren apaizak 1976an azken biak atera arte, Julen Kaltzada eta Jon Etxabe. Horren guztiaren ondorioz, apaiz izandako askok ofizioa utzi egin zuten eta elizarengandik urrundu ziren.

Xabier Amurizak gertaera horien gaineko xehetasun gehiago azaldu zituen amaieran, eta herritarren zalantzak argitu ere bai. Ritxi Lizartza zuzendariak ere grabaketa eta dokumentalerako ideiei buruzko laburpentxo bat eskaini zuen eta galderak erantzun.



Neonaren "Non" abestia, jatorrizko bertsioan

Calle Sonorarekin grabatu zuten "Non" abestiaren bertsio akustikoa urrian eman zuten ezagutzera. Abestiaren jatorrizko bertsioa plazaratu du azken egunotan Neona herriko musika taldeak.

Taldeak Facebook nahiz Youtuben duen orrialdeetan duzue entzungai. Labetik ateratzear duten diska berriko kantuetako bat izango da "Non". Urte amaieran "bukatu genuen gure lehen diska izango denaren azken laginak grabatzen eta txukuntzen. Bidea oso luzea izan da, eta gure lanaren emaitza zuekin partekatzea da opari handiena guretzat. Ilusio handiarekin izan denagatik eta izango denagatik!".

Odolaren Mintzoa taldeak lan berria plazaratuko du laster

Odolaren Mintzoa "Hauskor" bere lan berriaren lehen zertzeladak aurkezten hasia da. Aurrerapen moduan, bere "Hauskor" izeneko sortze lan berriko abestietako bat bideoklipetan bilakatu eta sareratu dute azken egunotan. Hainbat gazte usurbildarrez inguratuak ageri dira Luken Arkarazo, Jokin Irastorza, Beñat eta Joanes Txueka. "Kantuen grabaketan, ohiko taldekideez gain, partaide izan ziren Kaki Arkarazo, Elene Alustiza eta Natali Izagirre", argitu dute. Ikus-entzunezko lan honen grabaketan parte hartu dute Luis Jambrinak eta Garikoitz Diazek. Jambrinak edizioan eta errealizazioan.



'Azkenak' izeneko bideoklipa aurreratu berri dute. Argazkia: Ibai Arrieta.

Eñaut Pagola eta Pako Agudo aritu dira laguntzaile lanetan.

"Hauskorrek garelara onartzea ez da ahultasunaren adierazle"

Bide batez, aipatu baita, bideoklip hau sareratzarekin

batera, Odolaren Mintzoak Youtuben duen kanalean entzun eta ikus ditzakezue baita, urteotan sortu izan dituzten beste hainbat bideoklip eta abesti ere.

"Etsipenaren Aurka kaleratu

genuenetik 4 urtera" aurkeztuko digute laster, haien laugarren lan berria. "Lan honen eraikuntza prozesuan gure barne pitzaduretan, arrakalatan igerian ibili gara. Eta hona hemen emaitza, gure barneko zein kanpoko munduko zaurgarritasunez abesten duen kantu bilduma. Hauskorrek garelara onartzea ez delako ahultasunaren adierazle, bidean zutik mantentzen garelaren seinalea baizik".

Otsailaren 19an aurkeztuko dute diskoa

Otsailaren 19an aurkeztekoak dira lan berria. Sarean ordea otsailaren 10etik aurrera izango da entzungai.

Joxe Manuel Ikutza dardoetako “maisuari” gorazarre egingo diote otsailaren 12an

Alaia, irekia, “bere lagunenen oso laguna zen eta bazuen ikaragarri gus-tuko genuen burugogortasun puntu hori”. Badute oroitu eta omentzeko motiborik beraz, eta hala egitera doaz. Modu ezin egokiagoan gainera; zale-tasun itzela izan eta iaotasun trebea erakutsi zuen dardo txapelketen bueltan omenduko dute otsailaren 12an, iazko ekainean istripuz zendu zen Joxe Manuel Ikutza herritarra.

Haren oroimena bizi asko dute eta, bereziki herri hone-tan dardoetan aritzen diren zaletuek. Askok gogoratuko dute Ikutza, tabernan dardo makinan lehia bizian. Omenal-dia antolatzen ari zaion Usurbilgo Dardo Taldeak NOAUA!ri berri eman diotenez, bere trebetasunak Suitzako Europako txapelketa jokatzearaino eram zuen Ikutza, eta “bere mailan lehen zortzien artean sailkatu zen”. Baina horrez gain, “txapelketa ezberdin askotan parte hartu izan zuen”. Besteak beste, Euskal Herrikoetan, “Espainiako hainbat txapelketetan eta herrietako torneoetan”. Herri mailakoetan, bere sorterrikoan erakusten zuen dardo jolaserako iaio-tasuna, “Usurbilgo txuletak



Usurbilgo Dardo Taldeak Joxe Manuel Ikutzaren omenezko egunari buruzko xehetasunak eskaini dizkigu.

IKUTZARI OMENALDIA

“Otsailaren 12a, Joxe Manuelen urtebetetze eguna baliatu nahi dute bere lagunak biltzeko. Aitortza ekitaldiaz gain, hainbat txapelketa antolatu dituzte Sutegiko erakusketa aretoan”

izeneko txapelketan”.

Eta txapelketen bidez, gus-

tuko zuen hara eta hona ibili eta jendea ezagutzea. “Oso gus-tuko zuen dardoetan inguruan sortzen zen giroa, laguntasun hori, mugimendua, jende eta toki berriak ezagutzea”.

Partida batetik bueltan zendu zen

Zendu zen egunean ere “dardoetan jokatzetik zetorren”. Orion kide batek ezin bertaratu eta “gurekin etorri zen joka-

tzera. Nafarroako talde baten kontra genituen Euskal Herriko Kopako finalerdiak eta irabazi ondoren etxera bueltatzeko bidean joan zitzaigun”. Hor sortu zen omenaldia egiteko ideia. Osasun krisialdiak eragotzi die lehenago egitea, baina itxarroteak merezi izan du, egun ezin egokiagoa hautatu baitute omenaldirako; Joxe Manuelen urtebetetze eguna, otsailaren 12a.

“Gazteekin oso ondo konektatzen zuen”

Dardoetarako jokalaria gisa zitu- en bereizgarriari buruz gal- detu diegu. “Lehiakorra zen oso”, diote. Baina hitz batean laburbilduz, “bere konstan- tzia” nabarmentzen dute, “hobetzeko bere ahalegina”.

Zaletasun honen sustatzai- le ere izan zen, kide gehiago erakarriz. Baita belaunaldi berriak ere. “Gazteekin oso

ondo konektatzen zuen”. Baina Ikutza beti dardoetan maixu. “Partida bat jokatu eta egurra ematen zigun, lehia sanao izat- en genuen”.

Surfa eta snowboard zalea ere bazen. Surfeko lagunak despedida egin zioten iaz, dar- do zaletuen txanda izango da orain. “Gure asmoa, bere la- gun, talde kide eta jokoan are-

rioak zituena” biltzea da.

Joxe Manuel Ikutzaren omenez Otsailak 12, larunbata

- 12:00 Burma Road txapelke- ta Sutegiko erakustaretoan.
- 13:00 Omenaldia Sutegi atarian: aitortza gure laguna- ri eta beragatik topa egingo

dugu.

- 14:00 Dardozaileen bazka- ria Patri jatetxean.
- 17:00 Bikote Eroak txapel- keta Sutegiko erakustare- toan.
- Informazio gehiago eta ekitaldietako izen emateak: Aitzaga tabernan.
- Antolatzaila: Usurbilgo Dardo Taldea.

“Berak irabazten zuen beti”

Ikutzaren aldeko oroimen eguna dardo txapelketen bueltan ospatuko dute beraz hilaren 12an. Sutegi izango da zaletuen bilgunea. Zehazkiago esanda, kultur-etxeko erakustaretoa. “Bospasei makina jarriko dira bertan”, antolakuntzak ohartarazi duenez. Eta beirazko hormaz bestalde, lehiaketok jarraitzeko aukera izango da. Aukera honen alde egitea erabaki dute, osasun krisialdia aintzakotzat hartuta.

Hala, goizean banakako “Burma Road” txapelketa antolatu dute. Kanporaketen bidez jokatzeko den dardo modalitate bat dela argitu digute. Azken fasera heltzen direnentzat sariak iragarri dituzte. Espresuki hautatu dute jolas hau, Ikutzaren omenez. “Dardo makina Irrati tabernan zegoen garaitik joko horretan aritzen zen Joxe Manuel, oso gustuko zuen”. Eta bera nagusitzen zen lehian. “Hilero puntuazio gehien biltzen zuenari bi kilo eta erdi txuleta oparitzen zitzaizkion. Berak irabazten zuen beti”.

Banakako txapelketaren os-



Iazko ekainean istripuz zendu zen Joxe Manuel Ikutza. Bere aldeko omenaldia otsailaren 12rako iragarri dute.

OTSAILAREN 12AN

“Sutegi izango da bilgune nagusia.

Bospasei makina jarriko dira erakusketa aretoan”

tean, topa eginez Sutegi atarian bertan Ikutza omenduko dute. Gero dardozaleen eta bere lagunaren bilgunea izan nahi duen

bazkaritarako elkartuko dira Patri jatetxean. Iragan aste amaierarako 40 lagun inguruk izena emana zuten jada antolakuntzaren esanetan. Eta bazkalostean, dardoetan aritzeko aukera berria izango da. “Bikote Eroak” izeneko txapelketa antolatu dute Sutegiko erakustaretoan. Izenak dioen moduan, bikotekako lehian parte

hartzeko aukera izango da, 5 euro ordainduta; bikoteak ordea zozketa bidez erabakiko dira. “Jende berria ezagutzeko aukera izatea nahi dugu baita, eta lehiakideek normalean jokatu ez luketen kideekin aritzea, saltsa polita sortzeko”.

Ekintza hauetan modu soltean izen emateko aukera izango da egunotan Aitzagan.

Europarako sailkatu izan da Aitzagako dardo taldea

Herrian bada saltsa dardoaren bueltan. Ikutzaren omenaldia prestatzen ari diren lagunek NOAUA!ri berri eman diotenez, hiru tabernetan dituzte federazioko makinak; Usurbilgo Aitzagan eta Xarman eta Aginagako Arraten. Txapelketak orohar astetartean zehar izaten dira, iluntzeetan 21:00etatik aurrera. “Neguko kiroltzat jotzen dugu”, urte garai honetan taberna barrualdean egoteko giro aproposagoa izaten baitugu; dardozaleen onurarako, diotenez, “zortez Euskal Herrian nahiko luzea da negua”.

Osasun krisialdian murgildu ginenetik online bidez jokatzeko dira. “Lehen txapelketa baten finala jokatzeko Kirolegi edo pabilioi batera joan beharra zegoen. Gaur egungo neurri murriztaileek ordea dena eten dute. Makina hauek nork bere tabernatik, besteekin gustuko izaten dugun hartueman hori gabe baina jokatzeko jarraitzeko aukera ematen digute”.

Eta garaipenak eskuratzeko ere bai. Ikutzak eskola sortu du herrian. Bere antzera Europaraino heldu da Aitzagan osatua den dardo zaletuen taldea. Kanporaketa saiotik saio-

ra Madrilgo talde bat garaitu eta “Europako txartela” lortu dute. “Hasiera batean Kroazian ospatu behar zen, baina pandemia noiz bukatuko zain gara, tokia mantentzen ote den ikusteko”. Penintsulatik kanpo izango dela ziurtzat jotzen dute, bidaiatzea egokituko zaie beraz.

Kide berriak dardoetan zaletzera animatzen dituzte. “Probatu nahi duen guztiari hurbiltzeko herriko taberna hauetako batera; Aitzaga, Xarma edo Arratera, eta parte har dezatela”. Lehen Irratin jokatzeko dardoetan. Irrati itxi zutenean

makina Aitzagara ekarri eta lehiak bertan segi zuen. Gerora Xarma eta Arrate batu zaizkio txapelketa federatuetera. “Lehen etortzen zinen eta jokatzeko tokia izaten zen, orain ilaran itxaron eta txanda hartu behar izaten da”.

Datozen txapelketak martxoan hastekoak dira. Informazio gehiago nahiko balu aipatu hiru taberna hauetako batean galdetzeraz animatzen dute. Martxorako hain zuzen, egun osoko topaketa iragarri dute Aginagako Eliza Zaharrean. Pirinioetako kopako jardunaldia jokatu dute.

Bi udal diru-laguntza lerro berri

Orain arte Usurbilgo Udalak zuen diru-laguntza eskaintza zabalari beste bi lerro batuko zaizkio aurten. Hala jakinarazi zuen udal gobernu taldeak urtarrilaren 27ko osoko bilkuran. Batetik, kultur sorkuntza sustatzeko herriko sortzaileei zuzenduriko laguntza lerroa. Eta bigarrenik, Gizarte Zerbitzuen alorreko beste bat; une zehatz batzuetan oinarritzko beharrak asetzeko ezintasuna dutenentzat, gainerako laguntzetatik kanpo geratzen diren herritarrei zuzendua.

Momentuz 10.000 euroko partida bideratu asmo du udal gobernu taldeak lerro berri honetara. “Behar handiagoa balitz, diru partida handituko genuke”, argitu zuten EHBildutik iragan asteko udalbatzarrean. Gizarte babesa bermatzeko legealdiko apustuaren baitan kokatzen du udal gobernu taldeak diru-laguntza berri hau.

Kultur sorkuntzara bideraturikoarekin batera, biak lerro berriak, 2019an onartu zuten Dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatuko dituzte. Hala egitea babestu zuen udalbatzak aho batez urtarrilaren 27ko osoko bilkuran. Plan estrategikoa hiru urtekoa da. Aipatu moduan, 2019an onartu zuten, 2020tik 2022ra bitarteko indarraldia izango du. Arloz arlo, Udalak eskaintzen dituen



Urtarrilaren 27ko plenoan onartu ziren bi diru-laguntza lerroak.

UDALA

Laster zabalduko da aurtengo diru-laguntza lerro guztietara eskabideak aurkezteko epea

diru-laguntza guztiak biltzen ditu aipatu plan estrategikoak; euskara, garapen ekonomikoa eta enplegua, gazteria, Gizarte Zerbitzuak, hezkuntza, hirigintza, idazkaritza, ingurumena, kirola, kultura eta nekazaritza eta abeltzaintza sektoreetakoak hain zuzen.

Eskabideak laster

Laster zabalduko da aurtengo diru-laguntza lerro guztietara eskabideak aurkezteko epea. Udal gobernu taldeak dituen aurreikuspenen arabera, hila-bete erdialdera Tokiko Gobernu Batzarrean onartu eta hila-bete amaiera aldera eskariak tramitatzen hasteko aukera

eman nahi die Udalak interesa izan dezaketen norbanako nahiz herri eragileei.

Bake Epaitegiko lan taldea berrosatuta

Usurbilgo Bake Epaitegiko lan taldea osatua dago berriz. Urriko osoko bilkuran bake epaile titularra eta ordezkoa aukeratzeko deialdia onartu zuten. Gerora hautagaiak aurkezteko epea ireki eta bi pertsona aurkeztu ziren finkatua zegoen denbora tartean. Hautagaie-tako bat, “beste inor ez bazen” jarraitzeko prestasuna adierazi duen egungo bake epaile titularra izan zen, Agustin Esnaola Etxabe. Berak segiko du lanean bake epaile titular gisa, ordezkoa aldiz, deialdira aurkezturiko bigarren hautagaia izango da, Joana Murray Barandika. Hautaketa hauei aho bateko babesa eman zieten udal ordezkariak iragan asteko osoko bilkuran.

Urtebeteko azken luzapena, Eguneko Zentroa kudeatzeko kontratuan

Kalezarren, Haur Eskolaren eraikin berean kokatua dagoen Puntapax Eguneko Zentroa G.S.R. Gestion de Servicios Residenciales S. Coop.-ek kudeatzen segiko du beste urte batez. Hala erabaki zuen udalbatzak aho batez, urtarrilaren 27ko osoko bilkuran. Izatez 2018an izenpetu zuen aipatu enpresak eta Udalak hiru urterako, “adineko pertsonentzako Usurbilgo Puntapax Eguneko Zentroaren erabilera eta kudeaketa zerbitzua emateko kontratua”. Kontratu horren hiru urteko epea igarota, urtez urte beste bi urtez luzatzeko aukera hitzartu zuten. Bigarren eta azken luzapena da hain zuzen, udalbatzak iragan astean onarturikoa.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua luzatzeko hitzarmen berritzea

Usurbilgo Udalak gizarte ongizate alorreko etxez etxeko laguntza zerbitzua ematen jarraitzeko Foru Aldundiarekin duen hitzarmena 2023ra arte luzatzea onartu zuen aho batez udalbatzak urtarrilaren 27ko osoko bilkuran. Hitzarmen horren baitan Udala da zerbitzu hau kudeatu eta eskaintzen segiko duena. Aldundiak finantzatu du.

Aldaketak Txirikorda eraikitze lanen kontratuan

Aurreikusi ezin diren arren, obretan izaten diren ezusteko gertaeren adibide dugu lerrootan 2023an atek zabaldu ditzakeen Ugartondoko belaunaldi arteko etxebizitzakomunitarioa, Txirikorda. Udal gobernu taldetik urtarrilaren 27ko osoko bilkuran berri eman zuten, eraikin

hau kokatuko den lur eremua egonkortzeko lanak burutu behar izan dituzte, eta horrek gainkostu bat eragin du proiektuan. “Obra gehigarriak txertatzeko” obra kontratua aldatzea onartu zuen aho batez iragan asteko udalbatzarrean. Izatez, “kontratu honen hasierako prezioa 1.953.312,02 euro

(BEZa salbuetsita) zen eta aldatetaren kopurua 49.162,90 eurokoa da”.

Esleipen prezioarekiko aldaketa %2,52koa da. Gainkostuaz gain, obra gehigarriengatik kontratuaren exekuzio epea ere hilabetez, 30 egunez luzatzea erabaki dute.



Eraikin hau kokatuko den lur eremua egonkortzeko lanak burutu behar izan dituzte.

Orbeldiko ur bizien kanalaz herri batzar irekia

Orbeldiko presaren eta kanalaren eragina erriotan izeneko herri batzar irekia deitu du Anerreka ingurumen elkarteak otsailaren 10erako 18:30ean Sutegin. “Orbeldiko ur bizkorren kanalaren planari hasierako onespina eman zaion arren, gai honen eztabaida herriratzeko saioa izango da. Oria ibaiaren natur kontserbazioa eta biodibertsitatearen berreskurapena helburu, eman beharreko urratsak aztertu eta elkarbanatzea izango da saioaren muina”, iragarri du aipatu elkarteak.

Ibaien ekologian nazioarteko aditua, Artikutzako urtegia hustutzearen ondorioen ikerketaren zuzendaria eta ekologian katedradun irakaslea EHUn Arturo Elozegi eta biologoa, HUHEZiko irakaslea, Naturkoneko partaidea den Aitziber Sarobe gonbidatuko ditu Anerrekak hitzordu honetara.

Aranerrekako proiektuaren aurkezpena

“Ibaiko ekosistema bultzatzea, ibilbide sarea indar-



Arturo Elozegi Artikutzako urtegiaren hustutzea ikertu zuen. Otsailaren 10ean Sutegin egingo den batzar irekian hartuko du parte.

SOLASALDIA

Arturo Elozegi ekologian katedradun irakaslea eta Aitziber Sarobe Naturkoneko partaidea Sutegin izango dira otsailaren 10ean

tzea, parkean zehar erakarguneak sortzea, jolasguneak areagotzea eta segurtasuna bermatzea, beti ere, jasangarritasun irizpideak oinarri hartuta”. Irizpideon bueltan, “gabeziak zuzendu eta es-

ku-hartze handirik egin gabe eremuko elementu naturalak nabarmentzeko” Aranerreka naturgunea edertzekoak zirela berri eman zuen Usurbilgo Udalak iragan iraila amaieran. Lur Paisajistak enpresako kide Iñigo Segurola paisajistak eremu honen inguruan idatzi duen proiektua aurkeztuko du otsailaren 9an 18:30ean Sutegiko auditorioan. Ekitaldirako izena aurrez eman ahalko da otsailaren 7ra arte usurbilkultura.eus plataforman. Aurkezpen saioan zehar ekarpenak egin ahalko dira.

Emakumeen Jabetza Eskola

Bi ikastaro antolatu ditu Usurbilgo Udalaren Parekidetasun Sailak Emakumeen Jabetza Eskolaren baitan.

Pepa Bojoren ikastaroa

Batetik biodantza ikastaroa. Bestetik, “Gure arbasoak: gure leinu femeninoarekin lanean” izeneko, Pepa Bojorekin otsailaren 3tik maiatzaren 5era, ostegunero 17:00-19:00 artean Potxoenean.

■ Izen ematea: 943 377 110 parekidetasuna@usurbil.eus

HHI-n matrikulazioa itxtear

18 urtetik gorako herritarrei zuzenduriko doako hezkuntza egitasmoa dugu HHI. Horrez gain, DBHko titulua eskuratzeko 4 hilabeteko ikastaroak ere eskaintzen dituzte, gaztelania atzerritarrentzat edota irteera didaktikoak urtean zehar.

Matrikulazio epea otsailaren 4an itxiko dute.

Izena emateko aurrez hitzordua eskatu beharko da, telefono zenbaki hauetako batera deituta: 943 37 64 43/943 366 608.

Aitor eta Galder absolbitzearen alde

“Aitor eta Galder aske! Euskal gazteria aurrera!” aldarripean mobilizazioa deitu zuen Usurbilgo Ernaik urtarrilaren 29an, Aitor Zelaia eta Galder Barbadogazte arabarren absoluzioa eskatzeko eta bie elkartasuna adierazteko. Edozein unean jaso dezaketen Espainiako Auzitegi Gorenaren epaiaren zain dira bi gazteok. Dema plazan batutakoek argi dute, “gazteok ez dugu absoluzioa ez den beste epairik onartuko”.

Argi dute baita, “ez dela soi-



“Ernaitik Ertzaintzari exijitu nahi diogu errespetatuz dezan adierazpen askatasuna. Ez da lehen aldia gure herrira etorri eta gure aldarriak kentzen dituztela”.

lik bi euskal gazte militante konprometituren kontrako eraso, baizik eta bakea eta askatasunaren bidea egunez egune-

ko lanarekin eraikitzen ari den Herri baten kontrakoa”.

Agerraldi honen bezperatan, Aitor eta Galder aste zuzte eskatzearen aldeko zenbait pankarta jarri zituela adierazi dio NOAUA!ri Usurbilgo Ernaik. Baina pankartak jarri orduko kendu zizkietela. “Ernaitik Ertzaintzari exijitu nahi diogu errespetatuz dezan adierazpen askatasuna. Ez da lehen aldia gure herrira etorri eta gure aldarriak kentzen dituztela”.

Otsaileko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa

**ARIES**

Santa Ageda bezpera degu, Euskal Herriko eguna, etxe guztiak kantuz pozteko aukeratua deguna.

Hileko gomendioa: Garaia da lurraz gain, zu ere esnatzen hasteko. Bat, bi eta hiru... IEUP!

**CANCER**

Pandemiarekin bizitzen ikasi behar duzu.

Hileko aholkua: Gauza bat da osasun neurriak jarraitzea eta beste bat egunero gel hidro-alkoholikoarekin dutzatzea!

**LIBRA**

Kirola egiteak on egiten dizu eta zure bizitzako zati garrantzitsua bihurtu da.

Hileko aholkua: Horrek ez du esan nahi kiroldegian bizi behar duzunik.

**CAPRICORNIUS**

Bizitza asko garestitu da eta diru-iturri berriak lortzen hasi beharko zara.

Hileko aholkua: Santa Ageda eskean ateratzen bazara txanpon batzuk jasoko dituzu; ondo abesten baduzu behintzat.

**TAURUS**

Hilabete honetan Cupido eta Valentin Deuna zure alde izango dituzu.

Hileko aholkua: Laguntza guzti honekin ez baduzu ligatzen, dagoeneko ez daukazu esperantzarik!

**LEO**

Pandemia honekin nazkanazka eginda zaude, baina bizitzaren alderdi positiboari erreparatu behar diozu.

Hileko aholkua: Zein ongi etortzen den maskarilla hotz handia egiten duenean sudurra goxo mantentzeko, ezta?

**SCORPIUS**

Inauteriak urteko festa gogoenak dira zuretzat, eta bizipoza berreskuratzen lagunduko dizute.

Hileko aholkua: Ausartu eta beti nahi izan duzun mozerro horrekin atera!

**AQUARIUS**

Aurten zure urteak kuadrillarekin ospatzeko moduan izango zara eta pozik zaude.

Hileko aholkua: Zailtasunak izango dituzu hainbeste kandelak itzaltzeko, beraz, biriketako ahalmena handitzeko entrenatzen hasi!

**GEMINI**

Bi urtez atzeratutako sagardotegia egiteko une aproposa duzu hauxe.

Hileko aholkua: Horrek ez du esan nahi otordu guztia kupa-laren ondoan egon behar duzunik. Ez da inora joango!

**VIRGO**

Hilabete honetan kontu handia izan beharko duzu diruarekin, erraz ihes egingo dizulako.

Hileko aholkua: Eutsi itsulapikoa hausteko tentazioari!

**SAGITARIUS**

Animoz pattal samar zabiltza eta horregatik hilabete honetan oso garrantzitsua izango da zuretzat kalera ateratzea. Hileko aholkua: Ba al dago neguko eguzki epeletan egoitea baino gauza ederragorik?

**PISCIS**

Otsailaren 14a maiteminduen eguna dela eta zerbait berezia oparitu nahi diozu zure bikoteari. Hileko aholkua: Izan originaleta eta gonbidatu ezazu kroketa batzuetara; hori baino maitasun adierazpen handiagorik ez dago!

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, pizzak..
JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trasteleku, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Etxe bat alokairuan kaxkoan. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela eta igogailuarekin. 656783227

Bi logetakoko etxebizitza alokatzen dut Usurbilen. 750 euro hilabetean, maskotarik ez da onartzen. 647 58 72 58

San Esteban kalean (Etxealdia) 31m²ko lokal bat alokairuan. Masajeak emateko edo estetikazko zerbitzuak emateko prestatuta dago. 655735715.

Alokairuko pisu batean gela

bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Usurbilen pisu konpartitu batean logela bat alokatzen da mutil edo neska baten-tzat. Bila bazabiltza deitu 618032966

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

MOTORRA**Salmenta, garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. Interesatuok, hona deitu: 625701616.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Zaintzaile bat behar dugu, eguneko lau ordu, Eusko Jaur-laritzaren zaharrak zaintzeko titulua duena eta euskalduna dena. 943 000 333.

Zerbitzaria behar da Artzabal-en, barra, eguneko menua eta kartarako. 3 astetik behin asteburua jai. 30 orduko lanaldia. 943 36 91 39.

Olarrondo jatetxean zerbitzaria behar dute astebukaerarako. Eguerdian lan egiteko. 626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea

baloratuko da. 669 527 452.

Zerbitzari bila gabiltza Aginaga sagardotegian. 943366710 edo 943370668.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

Interna moduan edo orduka pertsonen zaintzan lan egingo

lukeen neska bat naiz. Mugitzeko aukera dut. Erreferentziak ditut. 643154392

Adinekoak eta haurrak zaintzak edota etxeko garbiketarako egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Astelehen eta asteazken arratsaldeetan ingeleseko klaseak ematen ditut, norberaren etxean edo nirean. Klaseak ematen esperientzia zabala. 678106553.

BESTELAKOAK

Abenduaren 19an larruzko eskularru marroi bat (barrutik larru txuria duena) galdu genuen Harane futbol zelaian. Aurkitu baduzu deitu 685725681Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama dauzkagu salgai. 6/7 hilabete-tako 5 txerrikume ere bai. Interesatzen bazaizude deitu 607 668 603 (Joxe Cruz)



Zorionak Ainara! Otsailaren 4an ospatuko dugu zure urtebetetzea. Muxuak gurasoan, aiton-amonen eta familia osoaren partetik.



Zorionak Paul! Oso ondo pasa zure urtebetetze egunean eta ea arrain handi bat harrapatzen duzun soziedadean ospatzeko! Muxu handi bat etxekoan partez!

Pilota partidak Usurbilgo frontoian

Otsailak 04, ostirala

■ 18:30 Gipuzkoako Errendimentu Txapelketa. Infantil 2. Maila:
-Pagazpe 2 (Ibarreta-Zabaleta)
-Hernani 1

Usurbil Kirol Elkarteko errifa

Usurbil Kirol Elkarteko urtarileko errifa saridunaren zenbakia 161 izan da. Sari-tuak urdaiazpiko bat jasoko du, Bordatxo tabernaren eskutik.

Futbol partidak Haranen

Otsailak 05, larunbata

■ 09:00 Infantil mutilak:
-Udarregi Usurbil FT B
-Texas Lasarteerra CF
■ 10:30 Infantil neskek:
-Udarregi Usurbil FT A
-Mutriku FT
-Udarregi Usurbil FT B
-Goierrri Gorri FK C
■ 12:00 Kadete neskek:
Usurbil FT-Euskalduna SD
■ 15:45 Preferente mutilak:
Usurbil FT-Danena KE
■ 18:00 Jubenilak:
-Usurbil FT
-Donostiako Igeltegi CF

Otsailak 06, igandea

■ 10:00 Kadete mutilak:
-Usurbil FT B
-Amara Berri KE
■ 12:00 Alebinak Hobekuntza:
Usurbil FT-Anaitasuna CD

Goardiako farmaziak

Osteguna 03 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 04 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 05 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 06 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Astelehena 07 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteartea 08 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 09 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Osteguna 10 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 11 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loloia 9. Lasarte

Larunbata 12 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 13 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda otsaila

02 asteazkena

■ **Literatur solasaldia Itxaro Bordarekin.** 19:00etan Sutegin. Antolatzaileak: Udalbiltza eta Usurbilgo Udala.

04 ostirala

■ **Santa Ageda eskea Zubietan.** Eskolako LHko ikasleak 10:00etan abiatuko dira Santa eskean. 10:45ean HHkoekin plazan elkartuko dira eskearekin jarraitzeko.

■ **Santa Ageda eskea Aginagan.** Eskolako ikasleak 14:30ean irtengo dira eskean.

06 igandea

■ **Haurrentzako zinea: 'Oltxiak'.** 17:00etan Sutegin. Sarrera: 3 euro, web orrialde honetan salgai: usurbilkultura.eus

Igande honetan Sutegin, haurrentzako zinea euskaraz

Oltxiak izeneko ikus-entzunez-koarekin emango diote segida Usurbilgo Udalak eta Ziortza Gazte Elkartek, abenduaz geroztik martxan duten hurrei zuzenduriko negu parteko euskarazko zine zikloari. Igandera, otsailak 6, iragarri dute proiektzioa 17:00etan Sutegin.

Sarrerak 3 eurotan usurbilkultura.eus plataforma bidez eskura ditzakezue. "Oltxiak bizitzeko leku baten bila dabilta, baina inon ez dira ongi etorriak sentitzen. Usain txarra dute, eta gizaki gehienek ez dituzte ondoan nahi. Familiaren dragoia Kirasterriko zabortegean lurreratzean, oltxiak etxean bezala sentituko dira, eta



'Oltxiak' ikusteko sarrerak usurbilkultura.eus plataforma bidez eskura ditzakezue.

bertain bizitzen jartzea erabakiko dute. Baina gauzak ez dira eurek uste bezain errazak izango, eta Kirasterriko herritarrei frogatu beharko diete elkarrekin bat eginda hiria salba dezaketela".

KzGuneko datozen ikastaroak

Goizez zabalduko dute Usurbilgo KzGunea otsailean, 9:00-13:00 artean. Hemen datozen ikastaroen berri:

Otsailak 1-14

■ 9:00-11:00 "Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi".

Otsailak 15-25

■ 9:00-11:00 "Kudeatu zaitetz Google aplikazioekin".

Informazio gehiagorako:

Kale Nagusia, 37
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

Datozenak

"Sexberdinak" antzezlanerako sarrerak salgai

Udalbiltzaren "Geuretik Sortuak" proiektuaren baitan hainbat ipuin, antzezlan eta film labur ekoitzi dira. Testuinguru honetan, artistek landutakoa plazaratzen hasiak dira asteotan.

Asteazken honetan, uztailean Usurbilen egonaldia egin zuen Itxaro Borda idazleak sortutako idazlana aurkeztu digu. Eta hilabete amaieran, Ttanttaka teatroak ekoitzitako "Sexberdinak" antzezlan ezagutzeko parada izango dugu.

Oiardo kiroldegian

Otsailaren 27an igandea 19:00etan Oiardo kiroldegian eskainiko dute Telmo Iruretak eta Aitziber Garmendiak. Sarrerak usurbilkultura.eus plataforman erosi ditzakezue 5 eurotan.



Otsailaren 27an igandea, arratsaldeko 19:00etan Oiardo kiroldegian.

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

Uraitz, s.l.

Igeltseritza
Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

“Energiak gaur egun duen garrantzia eta honen inguruan dauden arazoei soluzioa ematen lagundu ahal izateak, asko erakartzen nau”

Lander Azkarate lasarte-oriatarra Energiaren Ingeniaritza graduko bigarren maila ikasten ari da, Mondragon Unibertsitateko Orona Ideo campusean, Heranin.

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Lander Azkarate: Añorgako Amassorrain eskolan eta Lasarteko Landaberri institutuan ikasi dut. Igeriketa egitea, gimnasia joatea, musika elektronikoa entzutea eta bidaiatzea gustuko ditut.

Zergatik aukeratu zenuen Energia gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Aukera ezberdinak aztertu ondoren, nire nahietara gehien gerturatzen zen gradua zelako hautatu nuen Energiaren gradua. Izan ere, energiak gaur egun duen garrantzia eta ho-



Lander Azkarate Energiaren Ingenieritza ikasten ari da Orona Ideo campusean.

nen inguruan dauden arazoei soluzioa ematen lagundu ahal izateak, asko erakarri ninduen. Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen ikaskuntza-eredua oso erakargarria egin zitzaidalako.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Lehen ikasturtea erraza egin ez bazait ere, esfortzuaren medio egunetik egunera gehiago dakidala eta emaitzak aurrera ateratzen ari direla ikustek

gogotsu jarraitzeko indarra ematen dit. Momentu txarrak eta estresagarriak ere izaten dira, baina eguneroko lana ongi egin ezkerok, emaitza onak lortzen dira. Orain bigarren mailan nire egunerokotasunean denbora hobeto aprobetxatzeko eta ikasketak piska bat lasaia eramateko gai naiz.

Nola definituko zenuke Mondragon Goi Eskola Politekniko metodologia?

Ikaslearen jarraitutasun mailak oso handia izan behar badu ere, ebaluazioan zehar kontrol puntu ezberdinak izateak ikaslearen benetako jakinduria ebaluatzen laguntzen du, egun txar bat izateak ez baitzaitu joko kanpo uzten. Bestalde, klase garaian gauzatzen diren praktikak eta seihileko bakoitzaren amaieran dugun proiektu modeloak (Project Based Learning), klaseetan ikasitakoa era praktikoa batean ikusi eta hobeto barneratzeko balio digu.

“Behin gradua amaitu ondoren, master bat egitea gustatuko litzaidake”

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Irakasleen gertutasuna, ikaste prozesuaren praktikotasuna eta, kooperatiba bat izatearen ondorioz, Unibertsitateak

enpresetara gerturatzeko duen erraztasuna. Gainera, ikasketetan zehar hizkuntza ezberdinak lantzeari ematen zaion garrantzia, etorkizunerako oso baliagarria dela esango nuke,

izan ere hizkuntzek ate asko irekitzen dizkizute.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Erasmus programa baliatuz,

laugarren urtean norabait joan nahiko nuke nire ikasketak amaitzera. Behin gradua amaitu ondoren, master bat egitea gustatuko litzaidake.

URDAIRA



Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarrilaren 19tik maiatzak 1era
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81

SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



943 37 39 95

SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita

osasun neurri guztiekin



Tfno-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

ORDUTEGIA:

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako sagarra

Tel: 943 365 031

Santuenea

